ASTEKARIA - 2011ko urtarrilaren 21ean - XV. urtea - Usurbil, 434. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Gehiengo sindikalak greba deitu du urtarrilaren 27rako



Hasi da sagardotegi garaia

# Eromen egunak kupel artean

# AGINAGAKO Herri Eskola

## Eskola bizirik, Agiña bizirik!

bizirik!

eskola txikiak herri txikiak



·2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

·Jantoki zerbitzua.

·Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

·Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

Usurbilgo Udala

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

**Izena emateko epea:** **urtarrilaren 31tik otsailaren 10arte.**

**ATE IREKIAK:** otsailak 3, 9:30etik-17:00etara

Albistea iruditan !!

# Hamaika Telebistak eta Udalak hitzarmena sinatu dute

Usurbilgo herritarren artean euskararen erabilpena sustatu eta bermatzea eta euskararen erabilpena telebista eremuan hedatzea helburu duen lankidetza hitzarmena sinatu zuten lehengo astean Usurbilgo Udalak eta Hamaika Telebistak. Luzagarria izango den urtebeterako akordio honi esker, besteak beste, Usurbilen sortzen diren albisteak eta usurbildarren presentzia bermatua geratuko da, euskara hutsez gertuko informazioa eskaintzen duen aipatu telebista katean. Sinatze ekitaldian, hitzarmenak duen garrantzia azpimarratu zuten bi aldeek. Hamaika Telebistako ordezkari Iñaki Uriak zioenez, "baliagarria izango da Usurbil eta usurbildarrei bertako eta Euskal Herriko informazioa eskaintzeko, euskaldunen ikuspegitik". Pozik eta gustura agertu zen baita Xabier Mikel Errekondo alkatea. "Bertakotasuna formatu desberdinetan, hori eskaintzen digu Hamaika Telebistak", adierazi zuen. Beste udalak pauso hau ematera animatzearekin batera, lankidetza hitzarmenak Usurbilgo baloreak kanporatzeko aukera emango duela iragarri zuen Errekondok.



IÑAKI URIA HAMAIKA TELEBISTAKO ORDEZKARIA ETA XABIER MIKEL ERREKONDO ALKATEA, HITZARMENA SINATZEKO UNEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21
E-posta: elkartea@noaua.com
www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan
Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.
Tirada: 2.800 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

OSTEGUNERAKO GREBA DEITU DUTE ____ 5. OR.
SU-ETENAREN INGURUKO BALORAZIOAK ____ 6. OR.
TXOTX GARAIA HASI DA ____ 10. OR.
USURBIL FT TALDEKO KADETEAK ____ 15. OR.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA
Ford
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!
zerbitzu ofiziala
943 36 10 79
Zumartegi industrialdea

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
egunerako menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344



UNAI AGIRRE

# Erosi, bota, erosi

Hau da Katalunia, Frantzia eta Espainiako kate batzuk egindako dokumental baten izenburua. Lehengo egunean ikusi nuen, La2 katean, eta benetan harrigarria gertatu zitzaidan. Programatutako zaharkitzeari buruz hitz egiten zuen. Eta adibide garbia jarri ere, ezagutzen den lehena. 1924, Amerikako Estatu Batuak. Ordura arte bonbila ekoizleek ahalik eta gogorrenak egiten saiatu baziren ere, laster konturatu ziren zenbat eta luzaroago iraun, orduan eta gutxiago irabaziko zutela. Eta munduko bonbila ekoizle nagusienak bildu, eta erabaki zuten ordura arte 2.500 ordu irauten zuten bonbilak, 1.000 orduz erabili eta gero erre behar zirela. Eta urte bakarrean, bonbilen bizitza 1.500 ordutakoa izatea lortu zuten. Hamaika adibide gehiago aipatzen dituzte, baina zenbat adibide ez ote ditugu ezagutu, bakoitzak bere etxean; erositako gailu bati behin garantia bukatuta, zabortegirako bidean jarri behar dugula.

Baina bada beste "programatutako zaharkitze" bat ere. Eta honetan badugu gure ardura. Garai batean tresnak behin puskatuta botatzen bagenituen ere, orain produktu berri erakargarriagoak eskaintzen digutenean, ondo dabilen zahar hura botatzen dugu. Nik behintzat, gure etxeko telebistari errespetu gehiagoz begiratzen diot orain, 16 urte bete baditu ere.

Gehiago kontatu nahiko nuke ere, baina badut nire buruaren martxa aspaldian oztopatzen duen gai bat. Bizilagunekin arazoak, baina ez nolanahikoak. Gure etxe inguruko lur sail baten erabilpenarekin ados ez, eta mehatxuak, irainak eta erasoak jasan ditugu. Bada, orain epaitegietatik ere gure aldeko sententzia, irabazi dugu, guk erabili behar omen dugu lur saila. Baina hemen ditugu oraindik ere, makilarekin gure etxe inguruan bueltaka, garraxika, oraindik eboluzioaren azken urratsa eman gabe daudela dirudiela. Eta bitartean, Zubietarren elkartasuna, eskerrik asko hemendik. Lan gehiegi dugu Zubietan eta Usurbilen, jasaten dugun jazarpenagatik haiek utzi behar izateko. Erraustegia, kartzela, eta abar luze bat.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

### Larunbat honetan Kursaalera joateko deia egin dute

# Gernikako Akordioaren sinatzaileek

**Ekitaldi nazionala iragarri dute Gernikako Itunaren sinatzaileek larunbat honetarako, Donostiako Kursaal aretoan. Usurbilgo talde bultzatzaileak bertara joateko deiarekin bat egin du.**

Kursaalen izango dira iragan irailean hitzarmenarekin bat egin zuten gizarte, politika eta sindikatuen arloko 28 eragileen ordezkariak.

## Neurri gehiagoren premia

Gernikako Itunaren sinatzaileek adierazi dutenez, ETAren agiria aurrerapausoa da eta normalizazio politikoa eta bake egoera lortzeko bidean zalantzarik gabeko balioa du. Baina, prozesu demokratikoa abian jartzeko hitzarmenean erreferentzia egindako gainontzeko eragileek ere aurrerapausoak eman behar dituztela nabarmendu dute. Hala, normalizazio politikoa ahalbidetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu diote Espainiako gobernuari eta Gernikako hitzarmenean biltzen diren eskaerei erantzun positiboa emateko. Ildo horretan, bake bidera heltzeko inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertu behar dutela uste dute 28 eragileek. Espetxe politika etetea, jarduera politikoagatik epaituak izan direnen aurkako prozesu judizialak berraztertzea edota militante zein erakunde independentistei politikan aritzeko ezarri zaizkien debekuak bertan behera uztea dira, besteak beste, akordioan bildutako oinarriak.

Oraindik hitzarmenarekin bat egin ez duten eragile politiko, sindikal eta sozialei mugimenduarekin bat egiteko deia egin diete Gernikako Itunaren izenpetzaileek. Helburua, prozesu demokratikoak atzera-martxarik ez izatea baita. Horren haritik, Bruselako Adierazpena gauzatu duten nazioarteko bitartekariei orain arteko lanean jarraitzeko eskatu diete ere.

## Euskal gizarteari deia

Gernikako akordioa izenpetu dutenen ustez, euskal gizartea izango da negoziazio prozesuaren bermatzailea. Horregatik, sortzen ari den egoera berrian parte hartzeko eskaera egin diote.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: urtarrilak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 24.

## Urtarrilaren 27an greba orokorra, gehiengo sindikalak deituta

# "Erreformarekin proiektu politiko eta ekonomiko bat inposatu nahi digute"

**Greba orokorra deitu dute urtarrilaren 27rako. ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek egin dute deialdia, "Errespetatu langileon eskubideak" lemapean. Era honetan, Espainiako Gobernuak bideratu nahi dituen erreformak salatu nahi dituzte. Buruntzalde mailako manifestazioa arratsaldez egingo dute, Hernanin.**




ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE ETA HIRU SINDIKATUEK EGIN DUTE URTARRILAREN 27RAKO GREBA DEIALDIA.

Adolfo Muñoz ELAko idazkari nagusiaren hitzetan, "espainiar sindikatuekin eta Zapateroren gobernuko hainbat ministrorekin Madrilen antolatu den antzezpen handi horrek helburu bakarra du: langile-klasea desmobilizatzea, azken 35 urteetan ikusi gabeko eraso latz honi erantzun ez diezaion".

ELAko idazkari nagusiak berretsi du gehiengo sindikalak pentsioen murrizketaren kontra deitu duen greba orokorra "koherentea eta eskubide sozialei egiten zaizkien erasoen tamainakoa" dela.

Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiaren ustez, "erreforma honek argi eta garbi adierazten du krisi honetaz baliatuz proiektu politiko eta ekonomiko bat inposatu nahi digutela". Botere ekonomikoek diseinatu eta zuzentzen duten proiektua, "gaurko botere politikoaren eskutik garatzen dena".

### "Gure eskubideen defentsan"

Erreforma honen zergatiak zeintzuk diren ikusita, LABeko ordezkariak urtarrilaren 27rako deitutako greba orokorrarekin bat egiteko eskatu dio euskal langileriari: "Guk ez diegu uko egingo gure eskubideei, ez diogu uko egingo langileriaren eta herritarren interesak lehenestuko dituzten politikak aldarrikatzeari, ez dezala inork gure izenean Madrilen hau babestu".

### Pentsioen sistema, kolokan

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deitu dute urtarrilaren 27ko greba orokorra. Euren esanetan, krisialdiaren errudunek pentsioen sistema publikoa daukate jomugan. Botere ekonomikoak eskatu eta botere politikoak gauzatuko duen lapurreta izango dela diote. Hau guztia salatzeaz gain, honako proposamenak luzatu dituzte greba deitzaileek:

"Enplegua sortu behar da, baina kalitatekoa. Soldata zenbat eta handiagoa, orduan eta gehiago kotizatu.

Gazteak eta emakumeak lan merkatuan sartu behar dira baina baldintza eta aukera berdinetan.

Fiskalitate justu eta progresiboa, gehien irabazten dutenek gehiago ordain dezatela eta kapital errentak ez daitezela sarituak izan.

Euskal langileok gure pentsio sistema erabakitzeko ahalmena eta bitartekoak behar ditugu. Erabakitzeko esparru propioa behar dugu". Hau guztia kontuan hartuz, "euskal langileok mobilizatu beharra daukagu, kalera irten eta geure eskubideak errespeta ditzaten", adierazi dute.

### Manifestazio deialdiak

Urtarrilaren 27rako hainbat mobilizazio iragarri dira. Goizez, manifestazioa egingo da Donostian. Eskualdeko langileei deia egin zaie Donostiako Anoeta estadiotik abiatuko den zutabearekin bat egin dezaten. 12:00etan batuko dira Anoeta estadioan. Arratsaldez, Hernanin egingo da eskualdeko manifestazioa, 18:00etan abiatuta.









# Su-etena, bertako ordezkari politikoen ahotan

Urtarrilaren 10ean ETAk su-eten "orokorra, iraunkorra eta egiaztagarria" iragarri zuen. Adierazpen honek garai berri bat ireki du euskal politikagintzan. Bertatik bertara, gure ordezkari politikoen hitzak ezagutu nahi izan ditugu. Horregatik, Usurbilgo udaletxean ordezkatuta dauden sentsibilitate politikoengana jo dugu, iritzi eske. Hauxe izan da luzatu zaien galdera.




**Su-eten orokorra, iraunkorra eta egiaztagarria eman du ETAk. Zein da erabaki honen inguruan egiten duzuen irakurketa?**

## Ezker Abertzalea: "Abagune historikoa sortu du"

Bake eta aterabide demokratikoa lortzeko abagune historikoa sortzen du ETAren erabakiak, izan ere, prozesu demokratikoaren bilakaeran atzeraegin ezinezko mugarria ezartzen du, fase politiko berri bat irekitzeko erabaki ausarta eta determinazioz betetakoa baita.

Bai nazioarteko komunitateak bai Euskal Herriko zenbait eragile politiko, sindikal eta sozialek normalizazio politikorako eta indarkeriarik gabeko egoera sortu asmoz, Espainiako Gobernuari nahiz ETAri eskaera zehatzak egin zizkioten Bruselan eta Gernikan. Ezker Abertzalearen iritziz, eskaera horiek asetzen dituen erabakia da ETAk adierazitako su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria.

Gatazka politikoa behin betiko gainditzeko aukera honen aurrean, Espainiako eta Frantziako gobernuek eta Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozial guztiek sortzen ari den egoerari erantzun behar diote. Ezker Abertzaleak aldebakarreko mugimendu politiko sakonen bitartez agertoki politiko berri bat sortu du, eta, orain, beraz, aldeanitzeko mugimendu politikoetarako tenorea iritsia da. Espainiako Gobernuak ere urratsak egin behar ditu. Nahikotasunari buruzko diskurtso hutsa amaitu da. Orain, beraiek ere urratsak egin behar dituzte: ezker abertzalea legeztatuz, gure jarduera politikoa normalizatuz, espetxe politika gatazka konpontzeko prozesuaren mesedetan jarriz, jazarpena amaituz eta errepresioa bertan behera utziz.

## Hamaikabat: "ETAren desagerpenaren zain jarraitzen dugu"

Sufrimendua besterik sortu ez duen talde honek urteetan zehar mehatxupean izan dituen pertsonek sentituko duten lasaitasunagatik ekintza terroristen etetzea positibotzat jo behar da.

Adierazpenaren arabera, Hamaikabaten ustez, ETAk bere amaiera "prozesu demokratiko" bat martxan jartzearen baldintzapean jarri du. Gure ustetan ETAk baldintzarik gabe desagertu behar du eta desagertze prozesua euskal gizarteak –Euskal Herriko txoko guztietan– egiaztatu behar du.

Aski ezaguna da Hamaikabatek herriaren borondatea errespetatua izan dadin euskal gizarteak duen eskubide utziezinaren inguruan duen jarrera: iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko erabakiak errespetatzea. Horrexegatik, ETAk ez du zilegitasunik hitz hauek erabiliz hitz egiteko; behin eta berriz euskal herritarren borondatea urratu duelako bere desagerpena eskatu zaionean.

Elkarrizketa eta negoziazioa gizarte demokratiko orotan eman behar diren elementu ukaezinak izanik, Hamaikabatek berriz ere esan nahi du tresna hauek herri borondatearen hartzaile diren herri-erakundeetan erabili behar direla; eta ez erakunde hauek alde batera utzita aipatu erakundeak behin eta berriz deslegitimatzen saiatu direnek nahi duten bezala.

Azkenik, Hamaikabat ETArekin oso zorrotza izango da, izan ere adierazpen honetan ez dugu inon irakurri Euskal Herriaren etorkizunean tutore lanak egiteari uko egin dionik.

## Aralar: "Gernikako Akordioa betetze bidean, hasiera da"

ETAren agiria garrantzia handikoa da, eta Gernikako Akordioa betetzebidean hasiera da. Gure iritziz akordio hori da Euskal Herrian bakea eta normalizazio politikoa lortzeko benetako bide-orria.

Aralarrek deritzo ETA erakundeak Gernikako Akordioa bere osotasunean onartu eta bete behar duela, alde bakarreko erabakia barne. Agirian Gernikako Akordioa aipatzen den arren, ez du esaten bere osotasunean onartzen eta betetzeko konpromisoa hartzen duenik.

Agiriaren azken paragrafoa ez da oso koherentea aurretik daukan edukiarekin. ETA erakundeak politikan eskuhartzeko adierazi dituen asmoak alde batera utzi behar ditu.

Aralarren ustez, Euskal Herriko eragile politiko eta sozialen erantzukizuna da urratsak ematea, Gernikako Akordioko edukiak bere osotasunean bete arte.

Aralarrek Bruselako Adierazpenean gauzatutako nazioarteko bitartekaritzaren lana baloratzen eta eskertzen du eta bere ahaleginean jarraitzeko eskatzen die.

Aralarrek gainontzeko indar politiko eta sozialei, eta Europako erakunde demokratikoei eta Espainiako eta Frantziako estatuetako erakundeei eskatzen die indar politiko guztien legalizazioa gauzatu dezatela eta, aldi berean, indarrean dauden espetxe politikak modu sakonean berraztertzeko.

Aralarrek dei egiten die herritarrei Euskal Herrian sortzen ari den egoeran duten protagonismoa hartzera. Herritarren borondatea da eta izango da Gernikako Akordioa bere osotasunean betetzeko bidean izan diren eta izango diren oztopo eta mugak gaindituko dituena.

## EAJ-PNV: "Bide oneko urratsa da. Itxaropena dakar"

Garai politiko berria hasten ari gara: giza eskubide guztien defentsa tinkoa eta Euskadiren etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea dira aldi honetako ezaugarriak, gizarteak sendo bereganatuak dituenak eta utziko ez dituenak.

Kultura etiko eta politiko hau urtez urte ereindako haziaren fruitua da. Gogorazi nahi dugu EAJ izan zela "Euskadi aske eta baketsu baten alde"ko manifestazioa lehen aldiz deitu zuena 1978an, ETAri eta indarkeria orori ezetz esanez. EBBren ordu-ko agirian irakur daitezke baieztapen hauek: "EAJren pentsamoldearen arabera, helburuek ezin izango dituzte inoiz bitartekoak justifikatu, talde batek ezin izango dizkio inoiz Herri osoari inposatu ez helburuak ez bitartekoak. EAJk bere Herriaren askatasuna nahi du baina halaber Herriarentzat nahi du funtsezko oinarri etikoak gordetzea. Ezinbestekoa da indarkeria oro amaitzea".

32 urte joan dira ordutik. Gure ustez, ETAren agiria bide oneko urratsa da. Itxaropena dakar. Orain gauza bat nabarmentzen da: gaur egun euskal gizartean ez dago alderdi politikorik indarkeriara jotzea justifika dezakeenik. Orain arte ez bezala, ezker abertzale politikoki egituratua gailendu da urtebeteko eztabaida eta erabaki prozesuan eta ETAri esan zaio onartu egin behar duela politikak agintzen duena. Hemendik aurrera, bakea bultzatzeko eta balizko mesfidantzei haizerik ez emateko, politikari egin behar zaio bidea: hurrengo urratsa ezker abertzalearen legeztatzea izan behar da.

## PSE-EE: "Laburregia da ekimen terroristen amaierari dagokionez"

Lehenbizi esan nahi dut bakearen alde eta biolentzia terroristaren aurka ematen diren urrats guztiak albiste onak direla. Kontua da komunikatu honen ailegatzea gehiegi luzatu dela denboran, eta sortu ziren itxaropen guztiak eta gero, laburregia da ekimen terroristen amaierari dagokionez, eta beti bezala, Euskadiren etorkizunaren tutelatzaile agertzen dira.

Euskadirentzat dute proiektua garatzeko Ezker Abertzaleko gehiengoaren borondatea soilik bide politikoen erabileraren aldekoa denean, komunikatu honek ez du asko laguntzen; alderantziz, datozen hauteskundeetan egon ahal izateko behartua izan den komunikatua dela pentsatzen dutenei indar eman die.

Komunikatuak hainbat ate irekita uzten ditu, eta denborak esango du zeintzuk iragan egingo diren eta zeintzuk itxiko diren betiko. Euskal herritar guztiek etorkizunerako aukera ezberdinak erabakitzeko ahalmena izan dezatela, soilik bide demokratikoak jarraituz, eta atentatu berrien beldur izan gabe (aurreko hamaika alditan gertatu den bezala). Ez da azalpen eta demagogia handien garaia, denak helduak gara eta badakigu zer egin behar dugun, badakigu bidea zaila eta konplikatua izango dela, baina abiatu da eta ezin da atzera egin ezta oztoporik jarri; batzutan arinago besteetan mantsoago, baina hau geldiezina da, euskal gizarteak ez luke onartuko. Sinetsita nago, lehen aldiz, Ezker Abertzalearen gehiengoak kate denak gainetik kentzea erabaki duela, demokrazia politikoaren jokoan sartzeko prest dagoela eta hori demostratzeko prest dagoela, nahiz eta hurrengo hauteskundeetan ez egon presente.

# Lurraldearen Plan Partzialaren aurrean, udalak alegazio sorta tartekatzeko asmoa du

**Plan Partziala ardatz hartuta bigarren bilera deitu zuen Udalak aurreko astean. Abenduaren 22an dokumentua bera aurkeztu bazuten, joan den asteko hitzorduan aldiz, dokumentuari aurkeztu beharreko alegazioen azterketa ahotan hartu zuten bilkurara bertaratutakoek.**



AURREKO ASTEAN, BILERA IREKIA EGIN ZEN ARTZABAL BASERRIAN. ARGAZKIAN, UDAL ORDEZKARIAK ETA HERRITARRAK.

Ostegun honetan, urtarrilaren 20an amaitzen da Lurraldearen Plan Partzialari alegazioak aurkezteko epea. Udalak erreklamazio sorta tartekatzeko asmoa du, joan den astean gai honi lotuta Artzabalen burutu zen bigarren bilkuran, Udalaren izenean hitzorduan parte hartu zuten Xabier Mikel Errekondo alkateak, Oier Otxoantesana udal arkitektoak eta Ibon Goikoetxea ingurumen teknikariak berri eman zutenez.

Ordurako alegazioei forma ematen ari zirela aurreratu zuten. Baina Errekondok herritarrei ere dei egiten zieten, modu partikularrean alegazioak aurkez zitzaten.

### Donostiaren neurrira egina

Dokumentu arbitrariotzat jo zuen alkateak Plan Partziala, aldez aurretik planteatutakoa jaso baino ez zuela egiten zioen, eta beti ere, Donostiako ikuspegitik egina zegoela azpimarratu zuen. "Donostiaren nahi eta anbizioak jasotzen dituen plan bat da", gaineratzen zuen alkateak.

Gipuzkoaren hiriburuaren neurrira eginikoa, "eta nahi ez dituen gauzak kanpora bidaltzen dituena" udal ordezkaritzak gaineratzen zuenez.

### Irizpide kontrajarriak

Abenduaren 22an adierazi bezala bestalde, ingurumen teknikariak ere irizpide falta sumatzen zuen une honetan alegazio epean dagoen dokumentuan.

Irizpide fisikoak aipatu baino ez dituela egiten zioen Goikoetxeak, ingurune fisikoari dagokionean. "Herriko nekazal lurrak kontuan hartuko zituztela zioten, baina gero ez dira kontuan hartzen", gaineratu zuen.

## Eraikitzea, lehentasuna

Egungo azpiegiturak hobetu edo garatu beharrean, udal arkitektoak aipatzen zuenez, "egin beharrekoek dute lehentasuna". Kasu honetan, besteak beste, Zubietan Artzabaleta inguruan eraiki asmo duten errauskailuak eta Eskuaitzetako kartzelak. Edota Loiolako kuartela itxi eta Aritzeta ingurura lekualdatzeak. Otxoantesanaren esanetan, dokumentuan azpiegiturok gauzatu behar direla argudiatuta esaten da, "beste lekuetako garapenak ez direla beharrezkoak". Azpiegitura berriak baitira deigarrienak. Errauskailuaren ur beharrak asetzeko antza, San Esteban inguruko urak baliatzea aurreikusten da. Udal arkitektoak zehaztu moduan azkenean, "Usurbilgo urak bertara eramatea planteatzen da". Andoain aldetik etorritako hornidura elektrikoa ere bideratuko litzateke aipatu plantara.






# Trafikoa arintzeko, bigarren saihesbidea aurreikusten du Plan Partzialaren egitasmoak

**Kontraesan bat baino gehiago ere aurkitu dizkiote udal ordezkariek alegazio epean den dokumentuari. Esaterako, N-634 errepidearen kasuan. Batetik, Bugati eta Txikierdi lotuko lituzkeen errepide berria egin nahi da, baina ikusgarriena, Plan Partzialaren arabera Txikierdi eta Aginaga artean eraiki nahi duten saihesbidea litzateke. Azpiko irudia maketa modukoa litzateke.**

Txikierdi eta Aginaga arteko saihesbidea eraikitzeko, tunela eta bi zubi aurreikusten dira Plan Partzialaren hasierako erredakzioan.

Ibon Goikoetxea ingurumen teknikariaren esanetan, "azpimarratzen duten alderdi positiboa herriko trafikoa arinduko dutela da".

Baina gogorarazi zuen moduan, egun, N-634 errepideko trafikoa ez da Kaxkotik igarotzen, desbideratua dago jada. Aginaga-Txikierdi trafikoa arintzeko eraikiko litzatekeen bigarren saihesbidea litzateke beraz.

**PLANAREN ALDE ONAK**

"Ontzat jotzen dira trenbide sarea zuzendu zein indartzea, eta bide gorria sortzea Oria ibaia ertzetik"

Orain arte aipatutako xehetasun guztiei erreklamazio moduan erantzungo die Usurbilgo Udalak. Baita, gauza bera egin nahi duten herritarrek ere.

Bestalde, ontzat jotzen diren egitasmoen artean daude, trenbide sarea zuzendu eta indartzea, Txikierdiko eta Txokoaldeko geltokiak berreskuratzearekin batera. Baita bide gorria sortzea Oria ibaia ertzetik.

## Zehaztasun falta etxebizitza alorrean

Beste hainbeste gertatzen da etxebizitzen gaiarekin ere. Ezingo dira nahi adina bizileku eraiki Usurbilen. Plan Partziala eskutan hartuta ondorioztatu daitekeenez, eta udal arkitektoak zehazten zuenez, dokumentuak "Usurbilgo hazkundea eta hirigintza garapena mugatua du".

### Gehienez, 1.000 etxebizitza

Mila etxebizitza pasatxo eraikitzeko muga du udalerri honek. Kopuru horretatik gainera, berrehun bat bizileku eraiki dira jada. Gai honetan zehaztasun falta dagoela zioen udal arkitektoak: "Mugaketa nola egin den, zehaztu gabe dago".



AGINAGA-TXIKIERDI ARTEKO TRAFIKOA ARINTZEKO ERAIKIKO LITZATEKE BIGARREN SAIHESBIDEA. ARGAZKI-MUNTAIA HONETAN IKUS DAITEKEENEZ, TUNEL BAT ETA BI ZUBI AURREIKUSTEN DIRA HORRETARAKO.

# Herriko sagardotegiak bezeroak hartzeko prest dira

**Batzuk lehenago besteak geroxeago, baina ostegun honetan ospatzen den San Sebastian egunaren bueltarako irekitzen dituzte sagardotegiek euren ateak, eta noski, baita kupelak ere. Hasi da 2011ko txotx garaia. Aginagan, Usurbilen eta Zubietan, bisitatzeko zazpi sagardotegi ditugu.**

Txotx denboraldi hasiera ofizialki joan den astean hasita, ireki da aurtengo sagardotegi denboraldia ere. Ugariak izango dira aurrerantzean, herritarren joan etorriak sagardo berria eta ohiko menua dastatzeko.

## Txotx garaia, bete-betean

Hurrengo asteotan, guneotan biziko den giroa islatuko du NOAUA!-k, sagardotegi bakoitzari lotutako elkarrizketa bana argitaratuko baitu. Ofizialki hasi berri den txotx denboraldi honi buruzko nondik norakoen berri emateko aukera izango dute herriko sagardogileek.

Denboraldi honetako lehen afari edo bazkaria herriko sagardotegiren batean egin nahi duenak, hemen ditu aipatu zazpi sagardotegien telefono zenbakiak, erreserbak egiten hasteko:

### Herriko sagardotegiak

| | |
|---|---|
| **Aginaga** | 943 366 710 |
| **Aialde Berri** | 943 365 031 |
| **Araeta** | 943 362 049 |
| **Arratzain** | 943 366 663 |
| **Astiazaran** | 943 361 229 |
| **Saizar** | 943 364 597 |
| **Urdaira** | 943 372 691 |



HASI DA SAGARDOTEGI DENBORALDI BERRIA.



# Mikel Errasti, Aginaga Sagardotegia: "50.000 litro ekoitzi ditugu, Eusko Labelarekin zertifikatuta"

**Urtarrilaren 5ean ireki zuten Aginaga Sagardotegia, euren hemezortzigarren urtemuga egunean hain zuzen. Urte osoa irauten duen txotx denboraldiari hasiera eman diote jada. Bezeroak hartzeko prest dira. Txotx denboraldi honi buruzko xehetasunak Mikel Errastik dakartza.**

**NOAUA! Zenbateko ekoizpena prestatu duzue aurtengorako?**
**Mikel Errasti.** Gutxi gorabehera, 80.000 litro inguru egin ditugu. Beste urteekin alderatuta, berdintsu; 80.000-100.000 litro artean ibili ohi gara.


KANPOAN ATERPE BAT JARRI BEHAR IZAN DUTE ERRETZAILEENTZAT.

### AGIRIAREN GARRANTZIA

"Halako agiriek behintzat, sagardo hau hemengo sagarrarekin egina dagoela zertifikatu egiten dute"

**N. Kalitateari begira zer esan dezakezue?**
**M. E.** 50.000 litro ekoitzi ditugu, Eusko Labelarekin zertifikatuta. Urteak egon dira, beti hemengoa bakarrik ibili izan duguna, duela pare bat urte adibidez. Baina kopuru horretara ailegatzeko, ez da hemen nahi adina sagar egoten. Aurten, pixka bat kanpotik ekarri behar izan dugu.

**N. Eusko Labela aipatuta, komenigarria al da udaberrirako gai honi lotuta aurkeztu nahi duten egitasmoa?**
**M. E.** Gu gai hauetan sartuta gaude. Halako agiriek behintzat, sagardo hau hemengo sagarrarekin egina dagoela zertifikatu egiten dute.

**N. Aurten, zuengana joan daitekeen bezero kopuruaren inguruko aurreikuspenik egin al dezakezue?**
**M. E.** Iazko adina izatea espero dugu behintzat. Urtetik urterako balantzeei begira, asteburuetan hortxe mantentzen gara. Famili arteko giroa izaten dugu larunbat eta igande eguerdietan. Larunbat gauetan, afaltzera datozen koadrilak.

**N. Ditxosozko krisia eragiten ari al zaizue urteotan?**
**M. E.** Zerbait nabarmendu da, dudarik gabe beti nabarmentzen dela. Beti eragiten du, baina asteburuetan nahiko lan txukuna egiten dugu, eta hor mantentzen gara. Astegunetako bezeroen artean bezero beherakada nabaritu da, gau batzuetan batez ere. Eguerdietan koadrilekin eta nahiko ondo lan egiten dugu. Espero dugu aurten iazko adina egitea, eta horrekin oso gustura geratuko ginateke.

**N. Nola nabaritzen du bezeroak sagardo ona duzuela?**
**M. E.** Gustuaren arabera izaten da. Bazkaltzera datorrena, jende asko sagardoaz ulertzen duena bada. Sagardoa edaten duen jende dezente dago, baina bezeroak arrazoi desberdinengatik datoz sagardotegira. Sagardo, zerbitzu, janari edota hemengo kupelengatik. Irekita baitaude, norberak nahi duenean mahaitik altxa eta sagardoa edan dezan. Zortzi dituzte probatzeko.

## Urte osoan zabalik

**NOAUA! Ezin erre sagardotegi barruan. Prestatu behar izan al duzue?**
**Mikel Errasti.** Kanpoan aterpe bat jarriko dugu, mahai eta aulkiekin. Baina ez dugu arazorik izan. Bezeroen artean erretzaile asko izan arren, jendeak normaltasunez hartu du. Lehendik, hona etortzen diren frantziarrak ere kanpora ateratzen ziren erretzera, nahiz orain arte barruan erre zitekeen.

**N. Jatekoari dagokionean, zein da bezeroen platera gustukoena?**
**M. E.** Karta zabala dugu, baina gehienbat jendearen plater gustukoenak, bakailaoa piperrekin eta txuleta dira.

**N. Amaitzeko, bezeroei gonbita.**
**M. E.** Ahalik eta zerbitzu onena ematen saiatzen gara, lehengai onenarekin, prezio justuan.

**Aginaga Sagardotegia**
Estrata kalea, 7, Aginaga.
**Telefono zenbakia:** 943 366 710.
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com
**Lekua:** 300 lagunentzat tokia.
**Zerbitzua:** urte osoan sagardoa txotxetik eta sagardotegia zabalik.

# Kalitatearen ziurtagiriak piztu du ika-mika

**Abenduaren 28an irakurri genuen albistea prentsan. 14 sagardotegi kalitatea ziurtatuko duen zigilu propioa osatzekotan dabiltzala. Ez da Usurbilgo sagardogilerik hauen artean. Eusko Label zigiluaren babesa bideratu nahian dabiltza gainontzeko sagardotegiak. Aurtengo sagardotegi garaian, pil-pilean den kontua.**

Alorrene (Astigarraga), Altzueta (Hernani), Barkaiztegi (Martutene), Begiristain (Ikaztegieta), Egiluze (Errenteria), Gartziategi (Astigarraga), Gaztañaga (Andoain), Gurutzeta (Astigarraga), Isastegi (Aldaba Txiki, Tolosa), Mina (Astigarraga), Olaizola (Hernani), Sarasola (Asteasu), Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani). Besteak beste, bertako ekoizleekin lan egiteko konpromisoa azaldu dute. Sagar ekoizleekin lanean dihardute sagardogile hauek, 2005ean Sagardoaren Mahaia osatu zen garaiko irizpideei jarraituz.

## Eusko Label zigilua

Gainontzeko sagardotegiak (Gipuzkoan beste 19 daude, tartean Usurbilgo denak) Eusko Label zigiluaren baitan jarraituko dute lanean, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Kalitatea Fundazioaren eskutik.

Pasa den asteko Argia aldizkarian, Jakoba Errekondok gai honen inguruko hausnarketa hauxe plazaratu zuen.



Ziurtagiriaren inguruan piztu den ika-mikaren muinean, sagarraren jatorria dago.

# Bizkaia nagusi!

Oztopo eta zailtasun artean abiatu zena zankalatraba, estropezu, sator-lan, espioitza bideetatik sartu zuten, azpi-jan eta elkarri lurra kentzetik segi eta makina bat taktika aldaketen ondoren liskar epelak eta borroka hotzilak alde batera utzi eta guda piztu da. Piztu eta lehertu da. Eta Bizkaia nagusi eta ni pozik.

Sagardoaren panoramaz ari naiz. Hobe esanda, sagardogileez ari naiz. Urteak dira hemengo sagardoarentzako label bat sortzearen aldeko lanak abiatu zirela. Administrazioak eta sagardogileak elkarri proposamenka aritu dira tira-biran, ezin aurrera jo.

Eztabaidaren mamia label beraren izaera da. Label batek sagardoa babestu eta bere kalitatea bermatu behar du. Zein sagardo ordea? Hortxe dago koska.

Sasiaren adar guztiak azaldu ezinda, gatazka samur ulertzeko hona bi lubakien arteko tartea zein den: batzuk hemen egindako sagardoa sustatu nahi dute eta besteek hemengo sagarrarekin egindakoa.

Aldea ikaragarria da. Hemen egindako sagardoa jatorri ezezaguneko sagarrarekin egin ohi da eta bere sustapenak onuradun gutxi batzuk ditu: sagardotegiak soilik. Bertako sagarrarekin egindako sagardoa bultzatzeak, aldiz, onura barra-barra zabaltzen du: nekazariak, sagardotegiak, sagardozaleak, gure paisaia, gure identitatea, gure kultura, eta abar luze bat.

Labelaren oinarrizko ezaugarria administrazio publikoek sustatua izatea denez, etorkizuneko Sagardoaren Eusko Labelak zeinen alde egin behar duen ez dago zalantza izpirik: bertako sagarra erabili nahi dutenen alde, alegia. Aukera honen alde buru-belarri ari da Bizkaian sagardogintzari lotutako jende guztia: sagardotegiak, teknikariak eta baita Foru Aldundia bera ere. Hauekin batera ari da Gipuzkoako sagardogile mordo bat.

Gipuzkoan lehertu da, baina, guda. Edozein tokitatik ekarritako sagarraz sagardoa egiten jarraitu nahi duten hamalau sagardotegiko taldeak bere marka pribatu bat sortuko du. Hau da, beraiek ikuskatuko dute bere burua eta bere produktua. Nahi duten sagarrarekin, nahi duten sagardoa egingo dute eta kalitatezkoa dela beraiek esango dute.

Eta gipuzkoarra izaki, zalantza izpi bat sumatzen dut: ikuspegi publikoa, denon onura, bertako nekazaritza, ekonomia orokorrean, kultura eta identitatea zuzenean sustatzen duen bertako sagarrarekin egindako Sagardoaren Eusko Labelaren alde argi eta garbi azaldu beharrean jarrera epel samarra antzematen diot Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Nik zalantzarik ez dut. Bertako sagarra da etorkizunaren berme bakarra. Aspaldi hartua dute sagardotegiek sagardo estandar "edateko moduko" bat egiteko bidea eta horretan gu adina iaio den asko da munduan. Aurten Asturiesko sagardogile handienetako bat gure merkatua "kolonizatzera" dator. Bide hori oso motza da eta hortik gure sagardoa pikutara doa. Bertako sagarretik abiatzeak bermatuko du geroa: bertako sagarrak jaso eta jagotea, sagastietako teknikak berreskuratzea eta zabaltzea, nekazaritza suspertzea, dolareko eta upategiko lanak egokitzea eta sustapen aproposa. Honek soilik ziurtatuko du gure sagardoaren etorkizuna. Gure burdina eta gure itsasontziak ezagutuz munduak euskaldunoi aitortu digun sona izateko ezin bestekoa izan den gure sagardoa.

Dema honetan Bizkaia nagusi, eta ni bere alde.

**Jakoba Errekondo** (Argia astekarian jasoa, 2011ko urtarrilaren 16ko alean).

# Hurbilago txartelarekin egindako erosketek %5eko deskontua izango dute martxoaren hasiera bitarte

**Jada Hurbilago elkarteko establezimenduetan erosketak egin ohi dituzten 600 bezerok baino gehiagok eskatu dute izen bera daraman txartela. Elkartetik adierazi dutenez, hasiera honetan, egitasmoaren inguruko balorazio baikorra burutu dute. Eta txartelarekin lotutako eskaintzek ez dute etenik izango datozen asteotan.**



ARGAZKIAN, HURBILAGO ELKARTEKO KIDEAK.

Hain zuzen, hasiera batean, abendurako Hurbilago elkarteko establezimenduetan erosketak egin eta izen bereko txartela baliatuta, %5eko deskontua aplikatzekoak ziren. Azkenean, aipatu eskaintza urtarrilean eta otsailean ere mantentzea erabaki dute. Promozio hau beraz, indarrean izango da martxoa hasi bitartean. Hurbilago elkartetik adierazi dutenez, epea luzatzeko arrazoietako bat, Hurbilago txartela bezero askok berandu jaso izana da. Ondorioz, askok ezin izan zuten abenduko promozioa guztiz baliatu ahal izan.

### Diru txekeak eta zozketak

Otsailaren 28a ailegatuta ordea, ez da amaituko Hurbilagotik bezeroei luzatu nahi zaizkien promozioak. %5eko deskontua aurrerago ere aplikatzeko asmoa baitute; zehazki, maiatzaren 15etik 31ra. Bestalde, martxoan eta apirilean 50 euroko erosketa baleak zozketatuko dira. Bi lagunentzako afariak ere zozketatzen hasiko dira. Bezeroak afaria irabazi duela jakingo du, erosketa ordain agiriak horren berri ematen dionean. Ordain agiriarekin Rural Kutxara joan beharko da. Eta hori guztia gutxi balitz, diru txekeak ere jasotzeko aukera izango dute Hurbilago Txartela dutenek.

10 euroko erosketa bakoitzeko puntu bana jasoko du bezeroak. 100 puntura ailegatzean Rural Kutxaren bulegoan 5 euroko txeke bat lortzeko aukera izango da. Txekea Hurbilagoko establezimenduetan erabili ahal izango da.

### Irizpideak bateratzea helburu

Hurbilago elkartetik berri eman dutenez, geroz eta gehiago dira Hurbilago txartela duten bezeroak eta ondorioz, txartelaren erabilera ere hedatzen eta handitzen doa. Guztira, 600dik gora herritarrek eskatu dute txartela, azken bi hileotan. Erosketak ordaindu eta aipatu moduan, hainbat erraztasun eta sari lortzeko aukera ematen du txartelak. Hurbilagokoen aurrera begirako erronka, berri eman dutenez, bezero eta dendarien aldetik txartelaren erabilera normaltzea eta saltoki guztietan txartela erabiltzeko irizpideak bateratzea izango da.

# Saharan hainbat elikagai behar dituzte

**Saharar Herrien Lagunak, urtero legez, Sahararen aldeko Euskal Karabana jarri dute martxan. Tindufeko basamortuan bizi diren errefuxiatuei beharrezkoak dituzten elikagaiak eramango zaizkie. Usurbilgo Elkartasun Taldeak bat egin du ekimenarekin eta dagoeneko hasi dira elikagaiak biltzen: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atuna eta konpresak.**

Urtarrilaren 17an hasi zen Sahararen aldeko kanpaina eta urtarrilaren 29an amaituko da.

Arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atun-latak eta konpresak dira Euskal Karabanatik eskatzen ari diren elikagaiak eta produktuak.

Elkartasun hori bideratzeko, honako tokiak baliatu dituzte Usurbilen: DIA, Aliprox, Udarregi Ikastola eta Haur Eskola.

Azken egunean, urtarrilaren 29an larunbata, Urbileko Eroski supermerkatuan janari bilketa berezia egingo da, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte.


ARROZA, AZUKREA, LEKADUNAK, SARDINAK, ATUNA ETA KONPRESAK BILTZEN ARI DIRA.

# Andatzpekoak nagusi elkarteen arteko mus txapelketan

**Andatzpe elkartekoak nagusitu ziren elkarteen arteko mus txapelketan. Joxe Ramon Sarasola eta Xanti Zumeta bikotea nagusitu zen finalean. Imanol Esnaola eta Ane Manzisidor Aginaga elkartekoak, bigarren izan ziren. Joxe Mari Lizaso Peña Pagola batzordeko kideak eman dizkigu finaleko xehetasun denak.**



IRABAZLEAK ETA AZKEN TXANPARA IRITSI ZIREN GAINONTZEKO BIKOTEAK.

Usurbilgo elkarteen arteko XIII. Mus Txapelketako jardunaldi erabakigarria abenduaren 11n jokatu zen.

Aurretik, ohikoa den moduan, elkarte bakoitzean kanporaketak jokatu ziren eta elkarte bakoitzeko bina bikote txapelketaren fase finalerako sailkatu ziren. Peña Pagolan jokatu ziren azken norgehiagokak.

### Andatzpe, garaile

Txapelketako irabazlea Andatzpe elkarteko Joxe Ramon Sarasola eta Xanti Zumeta bikotea izan zen.

Txapeldun orde, Aginaga elkarteko Imanol Esnaola eta Ane Manzisidor.

Hirugarren Andatzpe elkarteko Pako Alkorta eta Jose Mari Torregarai.

Eta laugarren, Ibai Ondo elkarteko Jose Mari Mendiluze eta Inaxio Manterola bikotea.

### Lagundu dutenei esker onez

Lau bikote hauen artean banatu ziren txapelak, garaikurrak eta hainbat afari. Antolatzaileek euren eskerrik beroena eman nahi diete honako saltokiei: Saltxipi jatetxea, Saizar sagardotegia, Alamandegi jatetxea, Iruin sagardotegia, Barazar jatetxea, Maykar jatetxea, Antxeta jatetxea, Olarrondo jatetxea, Txapeldun taberna, Atxega jatetxea, Irigoien jatetxea, Artzabal jatetxea, Aginaga sagardotegia, Urdaira sagardotegia, Aialde-berri sagardotegia eta Patri jatetxea.

## 1956ko kinto afaria

1956an jaiotakoek afaria antolatu dute datorren otsailaren 26rako. Antxetan egingo dute kinto afaria. Joan nahi duenak, otsailaren 19a baino lehen eman dezala izena, ondorengo telefono zenbaki haueta-ko batera deituz:

627 709 657 (Mari Kruz)
943 370 265 (Inaxio).

## Saltxipin afaria, eskubaloiari esker

Eskubaloi taldekoen azken errifa zozketako sariduna Iker Etxabe izan da. 5.395 zenbaki sarituaren jabeak bi lagunentzako afari edo bazkaria irabazi du Txokoaldeko Saltxipi jatetxean. Ohi bezala, eskubaloi elkartetik, zozketa honetan parte hartzen duten herritarrak eta jatetxeak eskertu nahi dituzte.


IKER ETXABE, AZKEN SARITUA.







# Denboraldiko lehen zatia igarota, igoera fasea jokatzen hasi berri dira Usurbil FT-ko kadeteak

**Denboraldiak orain arte emandakoarekin gustura dira, kadete mailako futbol taldeko kideak. Haritz Zubiaurrek eta Beñat Larrañagak zuzenduriko hamazazpikoa -hamabi jokalari bigarren urtekoak, beste bostak lehen urtekoak- igoera faserako sailkatu berri dira.**


USURBIL FT TALDEKO KADETEAK ONDO ARI DIRA DENBORALDI HONETAN.

**NOAUA! Denboraldiko lehen zatia amaituta, zer balorazio egin dezakezue hileotaz?**

**Entrenatzaileak**. Positiboa. Lehen fasean, zazpi talderen artean bigarren geratu ginen. Igoera faserako sailkatu gara eta orain, aipatu fasea jokatzen ari gara. Duela bi aste hasi ginen eta lehen neurketa irabazi genuen. Zailagoa izango da. Helburua ez da igotzea, bai ordea ahal den neurrian lehiatzea. Maiatza bukaerara arte, hemezortzi jardunaldi izango dira.

**N. Denboraldiko bigarren zati honi begira bestelako zer helburu dituzue?**

**E.** Klubaren barruko helburuak daude eta jokalariak horiek ere betetzen dituzte. Jarrera aldetik ondo dabiltza, entrenamendu saioetara etortzen dira, oro har gogotsu dabiltza. Txartel gorri bakarra izan dugu, baina futboleko kontuagatik, ez norbaitek ostikoa jo duelako.

**N. Balantzan jarrita heziketa eta lehiakortasunak, bakoitzak zer nolako pisua du zuen taldean?**

**E.** Bakoitzak %50 ingurukoa. Lehen fasean, heziketa landu dugu; jokalari aldaketa guztiak egin, denak jolasten aritu dira, ahal zen neurrian denei minutuak eta aukerak eman zaizkie. Baina bada adin bat, lehiatzen hasi behar dutena, batik bat bigarren mailakoek, datorren urtean jubenil mailara pasako baitira. Horretan ere hezita egon behar dute, azkenean lehiatze hori heziketa ere bada. Orain bigarren fasera pasa garen honetan, mutilei helarazi diegu hemendik aurrera minutuak garesti egongo direla, egongo dela jendea jolastu gabe egongo dena. Ez jokatze hori ez da gustukoa baina heziketaren barrukoa da. Ikasi behar dute, gehiago borrokatu behar dela, saiatu eta gehiago hobetu beharra dagoela. Argi esan diegu, orain helburua lehiatzea izango dela.

> **TALDEKO ENTRENATZAILEAK**
>
> "Konfiantzarekin jolasten dutenean, benetan maila polita ematen dute"

**N. Esan liteke, zuena trantsizioko taldea dela lehiakortasunaren garrantziari dagokionean?**

**E.** Lehiatzea senez ikasten dute. Infantiletan garrantzi gutxiago izan arren, lehiatzea gustuko dute. Horregatik, entrenatzaileak kontrolatu egin behar du. Talde honetan heziketarekin jarraitzen da, baina beraiek ere jabetzen doaz lehia garrantzia hartzen doala. Azkenean heziketa, hobeto garatzeko emaitzek ere laguntzen dute, giro hobea duzu, gaztetxoak gusturago datoz. Ingurune positiboago batean, haurrek ere mezuak hobeto jasotzen dituzte. Halere ez diogu berdina eskatzen, bigarren urteko edo lehen urteko jokalari bati. Bigarren urteko bati ardura gehiago hartzea eskatzen diegu, gazteei laguntzea.

## Konfiantza eta segurtasuna

**N. Taldearen indar guneak zeintzuk dira?**

**E.** Ez gara ez dakit zenbat gol sartuko dituen taldea. Gure taldeak indarra izan behar du, sendoak, denok elkarrekin defendatu eta gol gutxi jaso behar dituen taldea izatea.

**N. Azken hitzak taldearentzat.**

**E.** Konfiantzarekin jolasten dutenean, benetan maila polita ematen dutela. Konfiantza eta segurtasunarekin irteten direnean, guri irabaztea oso zaila dela esan nahi genieke.

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97


txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

## Agenda !!

**Urtarrilak 26 asteazkena**
**-Kultura Aholku Batzordea,**
18:30ean udaletxean.

**Urtarrilak 28 ostirala**
**-Azken ostiraleko elkarretaratzea**
Mikel Laboa plazan, 20:00etan.

**Urtarrilak 29 larunbata**
**Kantu-jira** 19:00etan, frontoian.

### Goardiako farmaziak

**Urtarrilak 20, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

**Urtarrilak 21 ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 22, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

**Urtarrilak 23, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

**Urtarrilak 24, astelehena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 25, asteartea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 26, asteazkena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 27, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 28, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 29 larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 30, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

G*OARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
***Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 336 077.***

### Urtarrilak 26 asteazkena, Kultura Aholku Batzordea

Urtarrilaren 26an bilduko da, arratsaldeko 18:30ean udalbatza aretoan. Besteak beste, diru-laguntzei buruz hitz egingo da.

# Gure Pakea elkarteak batzarrean parte hartzera deitu ditu bere bazkideak

**Datorren astean, Gure Pakea jubilatuen elkarteak Ohiko Biltzar Nagusia egingo du. Batzarra Artzabalen izango da, urtarrilaren 28an ostirala, 16:30ean.**

**Gai zerrenda:**
1.- Lehendakariaren agurra.
2.- Aurreko biltzar nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
3.- 2010eko memoria irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
4.- Honako hauek irakurtzea eta onartzea, hala badagokie:
a) 2010eko diru sarreren eta gastuen balantzea.
b) 2010eko abenduaren 31n itxitako diru egoeraren balantzea.
5.- Batzordearen berrikuntza.



BATZARRA URTARRILAREN 28AN EGINGO DA, 16:30ETAN.

6.- 2011. urtean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak.
7.- Galde-erantzunak.

**Eguna:** 2010eko urtarrilaren 28a.
**Ordua:** 16:30 (deialdi bakarra).
**Lekua:** Gure Pakea, Artzabal.

### Santa Ageda bezperako deialdiak

Santa Ageda bezperan kantari aterako dira **Zubieta aldean**. Helduentzako ensaioak ostiraletan egingo dira, arratsaldeko 19.00etatik aurrera Kaxkapen, frontoi atzeko lokalean. Ensaioak, beraz, urtarrilaren 21ean eta 28an izango dira, arratsaldeko 19:00etan. Gogoan izan helduentzako deialdia dela hauxe.

### Bota Punttubakoak, kantari

Bota Punttuba bertso eskolakoak ere kantari aterako dira otsailaren 4an ostirala. 19:00etan elkartuko dira Mikel Laboa plazan. Kaxkoan ibiliko dira tabernaz taberna eta ondoren sagardotegietara joango dira. Animatzen bazara, ez ahaztu baserritarrez jantzita joatea eta Santa Ageda makila eramatea.

### Kultur ekitaldiak Akerra gaztetxearen eskutik

Urtarrilaren 23tik 30era, errausketaren eraginei eta oro har, ingurumen alorrari lotutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Akerra gaztetxekoek.

**Urtarrilak 23, igandea**
**18:00 "Errausketaren ondorioak osasunean" hitzaldia** Sutegin, Iñigo Suberbiola medikuaren eskutik.

**Urtarrilak 28, ostirala**
**20:00 Triki-poteoa herrian.**
**23:00 Kontzertua Akerran:** Despervicio (Usurbil), Disorders (Zaldibar) eta Itzartu (Lasarte-Oria).

**Urtarrilak 30, igandea**
**18:00 "Home" bideo emanaldia** Sutegiko auditorioan.





www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

### Etxebizitza

- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. 648 005 159.
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### Salerosketak / garajeak

- Fiat Punto bat salgai. 120.000 km eta 1.500 euro. Interesatuak deitu: 687757850 (Arantxa).
-5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. 676453176.
- Toyota Corolla salgai, 5 urte, 84.000 km. 3 ate, gris-argia. 6.700 euro. Ondo zaindua. 609 928 387.
-Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da, 85 euro. 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeko bi marra dauzkat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
-33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

-Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuta bazaude 615756893.
- 9:00etatik 15:30 arte etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko esperientziadun emakume baten bila gabiltza (abuztua eta Aste Santua izan ezik). 645737925 (Larraitz).
- Usurbilgo Optikan esperientzia duen pertsona bat behar dugu jornada erdian aritzeko. 675708654.
- LHko bi umeei bazkaria emateko norbaiten bila gabiltza. Egokiena kaxkoan bizi den norbait. Telf. 689 769282
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-eskaintzak

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Neska bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak emateen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Urtarrilaren 16an Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Artzabalgo erreka ondoko banku batean patinete bat aurkitu genuen Errege egunean. 669353942.
-Bizikletako guante luzeak galdu ditut, kaxkoa eta tren geltokia artean. Topatu badituzu, deitu hona 634425787 (Borja) edo Bordatxora eraman.
-Mutil baten polar marroi bat galdu dut. 687406209.
-5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. Interesatuak deitu 676453176 zenbakira.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Administrazioko perfil guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrak ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- Gurpildun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa, silla, burbuja eta zakutxoarekin. 616586851
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Sara!** 10 urte bete dituzu urtarrilaren 16an. Zorionak, Noemi, Daniel eta Juankarren partez.



**Zorionak Oier!** 26an 6 urte beteko dituzu! Prestatu belarriak... Eta mila muxu etxekoen partez!!



**Zorionak Olatz!** Zure seigarren urtebetetzean! Etxekoen eta lagun guztien partez, muxuak!



**Zorionak printzesa!** 6 urte egingo dituzu! Etxekoek muxu handi handi bat bidaltzen dizugu. Zure lagunekin ondo pasatzea opatzen dizugu. Asko maite zaitugu amatxok, aitatxok eta Naiarak.



**Zorionak Jon!** 5 urte bete behar dituzu eta eskolatik zorionak bidaltzen dizkizugu. Urte berri on eta ondo pasa!

### Hildakoak



**Simon Esnaola Armendariz**
Urtarrilaren 15ean hil zen, 89 urterekin

### Jaiotakoak

**Xuban Karrera Ullate,** urtarrilaren 13an.

**Oharrak, zorion agurrak, jaio** edo **hildakoen** berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko12:00etan: **erredakzioa@noaua.com**
** Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu.*

# AURTEN ALDAPARIK EZ!

**Hurbilago txartelarekin ordainduz gero**

**%5eko**

**Deskontua** urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra.




Usurbil osasuna atez ate

Usurbilgo Udala

# hurbilago

Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkartea

Akarai baserria-jatetxea
USURBIL OPTIKA
LAUROK liburudenda
Aizpurua Okindegia
Elexpe
ESNAOLA JANARIDENDA
harategia - urdaitegia ARRUTI
atxega
OLARRONDO JATETXEA

mur
ELDAMU KONPONKETAK
Enar estetika
Okindegia LABE-GOXO Gozotegia
Olar-Goxo
BORDATXO taberna Pintxo bereziak
AGINAGA SAGARDOTEGIA
Bixen ileapaindegia

Esnaola LORATEGIA
Aliprox
JUANTXO BURDINDEGIA
LIZARDI LIBURUDENDA
Palma
TXAPARTEGI harategia
T TABERNA
Lurda

MIKEL ARRAINDEGIA
ALKARTASUNA
INTZA
LOLI LIZARRALDE
Poxpolin mertzeria
Iturralde botika
Txirrita taberna
SALTXIPI JATETXEA - RESTAURANTE

SAIZAR
kaffa KAFETEGIA GOZOTEGIA
Arkaitz ILEAPAINDEGIA
ARGILAN Elektrodomestikoak Elektrizitatea
iratze naturdenda
Marije Arropa denda
Azalako frutadenda
ARRAINDEGIA Pello
Urtinea loradegia

# UDARREGI IKASTOLA

PARTAIDE IKASTOLAK

*Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:*

- O urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

42 urteko esperientzia Usurbilen.

## Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

## Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16

**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com